

Aretxabaleta,  
1994eko ekainak 30

# Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABALETA



## Zikloturismoa: afizioa eta kirola

- Portasoleko  
jaiak

- Kirolak: K-2  
gailurrean

- Hurretik:  
Martin Garai

3. Boteprontoan  
**Bizikletan ibiltzea arriskutsua da?**
4. Hamabostean behin  
**Pala Txapelketa finala.**
5. Hamabostean behin  
**Euskararen eguna.**
6. Hamabostean behin  
**Igotz Urzelai intsumisoa epaitua.**
9. Hamabostean behin  
**K-2 Euskal Espedizioa.**
10. Elkarrizketa  
**Zikloturistak.**
13. Kirolak  
**Mikel Roldan Gipuzkoako txapeldun.**
15. Kontu Zaharrak
18. Hurretik  
**Martin Garai**
19. Agenda eta Aretxazoka

## ZIKLOTURISTAK

**Denok dakigu zikloturisten garaia udara dena aldapan gora aldapan behera errepidetan barrena, nahiz beraientzat bizikleta den adiskide handiena deskuido batek bihur dezake etsaietan etsaiena.**


**Pentsatzen jarriz zein irtenbide erraz aurki dezakedan ziklistentzako bide zurrak jarri nahi ditut aukeran, arrain haundiek arrain txikiak maiz jaten dituzten eran, kotxe handiek bizikletarik ez dezaten bota hegana.**

*Saioa Arando*

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala.  
**Inprimategia:** EguzkiGRAF **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

## Bizikletan ibiltzea arriskutsua da?




**Jon Antxia**  
(Irakaslea)

Egia esanda nahikoa arriskutsua. Hemengo bideak estuak dira eta gainera kamioi eta automobil asko dabil. Nik gurago izaten dut mendian ibili.



**Eneida Sanabria**  
(Ikaslea)

Bai, ibiltzen naiz eta kaminon ibiltzea oso arriskutsua da, kotxeak aguro doazelako. Horregatik mendian ibiltzea gehiago gustetan zait.



**Igor Gonzalez**  
(Ikaslea)

Orain ez naiz asko ibiltzen. Baina arriskutsua dela uste dut, batez ere dagoen trafikoagatik. Ni ibiltzen nintzenean mendira joaten nintzen, mendian ez da hain arriskutsua kaskoaz bazoaz.

## KARTAK

### Udaleku irekiak

Urtero bezala aurten ere Uztailean zehar Udaleku Irekiak antolatu dira:

Udaleku hauek bi txandatan banatuak izan dira. Lehen txanda Uztailearen 1ean hasi eta Uztailearen 14ean bukatuko da. Bigarrena berriz, Uztailearen 15ean hasi eta Uztaileak 29an bukatuko da.

Esan beharra dago aurten ez dituela udaletxeak antolatzen, baizik eta **ORTZADAR atseden taldeak**, nahiz eta udaletxearen laguntza izan.

Lehenengo txandarako 170 haurrek heuren izena eman dute orain arte. Bigarren txandarako berriz Uztailearen 10etik 15era

edukiko dute izena emateko aukera.

Izena emateko tokia **ORTZADAR** taldeak Herriko plazan duen lokalean izango da.

Espero dugu lehen hamabostaldi bikain baten ondoren bigarren hamabostaldian haurren kopurua aurrekoaren antzeko edo hobe izatea.

*Ortzadar Atseden Taldea.*

Kaixo Alkate jauna:

Kurtzebarri eskolako 2. mailako ikasle eta irakasleak gara. Orain dela gutxi Zarautzen eta Oñatin izan ginen eta konturatu ginen auzo guztietan jolastoki, berdegune, iturria eta kolumpiuak zehudela. Hau dela eta Aretxabaletan auzo guztietan berdin izatea gustatuko litzaigukela pentsatu genuen. Guzti hau konponduko duzelakoan agurtzen zaitugu.

*Kurtzebarri Eskolako 2. mailako ikasleak*



Joan zen eguakotxean, Kurtzebarri eskolak urte bukaerako jaialdia ospatu zuen. Jaialdi hau aprobetxatuz, **Arantxa Iza andereñoari omenaldia egin zioten Kurtzebarri eskolako ikasle eta irakasleek**. Ikasleek bertsoak kantatu zituzten, soinua jo zuten, ... ez zen ezer faltatu egun berezi honetan.

Azken asteotan, pala txapelketa jokatu da Kirol-Etxean. Finala domekan, hilak 19, jokatu zen, eta azkenean **Uribetxebarriak eta Maritxalarrek, Koldo Azkoitia eta Inaxio Garrori irabazi zieten, 35 eta 20**. 15. tanturarte partidua nahiko bardindua joan zen, baina tantu honetatik aurrera, Uribetxebarria eta Maritxalarrek askoz gehiago zirela demostratu zuten. Koldok eta Inaxiok ezin izan zuten gauza handirik egin.



**MZ** MASAILARIAK

**MASAIK ZARAIA**  
MASAIK eta  
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A  
Tfnoa: 79 71 55

**"HERRASTI"**  
**AKEITA ETXEA**



Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83

**IBARRA**  
**ESTANKOA**

**Tabakoa eta**  
**ikasmateriala**

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



Afarian, giroa ez zen falta izan

## Euskeraren egunean antzerkia eta afaria

**Euskeraren eguna** ospatu genuen ekainaren 18an. Eta urtero moduan, giro onak hartu zuen protagonismoa. Giroa berotzeko zenbait ekintza izan genituen arratsaldeko 5.30etatik aurrera. Ordu horretan, umeentzako buru-haundiak eta bonba japoniarrak egon ziren. Ostean, 6.30ak inguruan, Sebastopoleko Titiriteroek "Giza piztia" antzezlanaren eskeini ziguten, baina tamalez, ordu horretan botatako euri zaparradak ez zigun antzekia ondo ikusten

lagundu. Ausartenek aterkina eskuetan zutela antzerkia ikusten jarraitu zuten, gainerakoak, berriz, aterpearen bila joan ziren.

Antzerkia 7ak aldera bukatu zen eta 9etan festa-egunari bukatu emateko, Iturrigorri frontoian 90ren bat lagun bildu ziren herri afaria egiteko. Afaldu eta gero, Maixa eta Itziar trikitilariak lagunduta dantzaldia egon zen, goizalde arte. Jai giroa nagusi, beraz, Loramendik antolatutako **Euskeraren egunean.**

□ Udalak jakinarazten du, ekainaren 27tik uztailaren 11ra bitartean, Hautesle zerrendak jendeaurrean egongo direla 1994ko urtarrilaren 1era begira osatutakoen aurka.

Norbaitek, bere barneratze edo ez barneratzen-gatik erreklamazioa aurkezterik balu, Udaltxean bertan egin dezake ohizko ordutegian.

□ Uztailaren 4an, Kixkor tabernan, Billar txapelketa hasiko da, eta uztailaren 24an finalak jokatu dira. Txapelketa honetan apuntatu edo informazio gehiago gura duena tabernara joan daiteke.



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria

# MITARTE GARAI

• *Jatetxea eta logelak* •

Areantza auzoa

☎ 79 17 51



Futbito txapelketa uztailean jokatu da

## Arlutz futbito txapelketa

Uztaileko futbito txapelketak, aurten ere, ez digu kale egingo. Arlutz tabernak antolatu duen txapelketa uztailean leian hasiko da eta hilabete osoa iraungo du. Beraz, dagoeneko, prestaketa guztiak puntu puntuan daude. Bertan parte hartzeko 5.000 pta ordaindu beharko dute partaideek eta dirua izena ematerakoan, nahi eta nahiez, eman beharko dute. Dena dela, txapelketan zehar arazorik egon ez dadin, antolatzailerik gauzak garbi utzi gura izan dituzte eta horretarako zenbait arau bete beharko dira. Arauak honako hauek ditugu:


- Talde bakoitza gehienez 10 jokalariz osatua egon beharko da.
- Talde bakoitzak bere epailea izango du.
- Lehenengoan agertzen ez den taldeari 2 puntu kenduko zaizkio eta 2. aldiz agertzen ez bada, txapelketatik kanpo geratuko da.
- Iskanbila edo burrukaren bat sortu ezker, talde osoa deskalifikatua izango da.
- Organizazioak ez du bere gain hartzen gerta daitezkeen gaitz edo istripuak.

## Igotz Urzelai intsumisoa epaitua



Igotz Urzelai Eraña intsumiso atxabaltarra ekainaren 28an epaitu zuten Donostiako Auzitegi Probintzian. Gauregun ezetz esaten dioten gazte guztiak epailearen aurrean deklaratu behar dute. Igotzi ezarriko dioten zigorra 2 urte 4 hilabete eta egun batekoa izan daiteke berak esan digunez. Horrela bada, dagoeneko, 5 intsumiso atxabaltar epaitu dituzte; Igotz Urzelai, Andoni Urzelai, Julen Larrinaga, Jon Ander Loidi eta Felix Iñurragi.

## EGUZKIGRAF



**Aldizkariak  
Inpresoak  
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxa 943-79 29 41

## EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

## Lehiaketa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzak Enpresa barriak sortzeko Gazte-entzako Ideia lehiaketa antolatu du.

18 - 30 urtekoei zuzendurik dago, eurentzako lanpostu berriak sortzeko ideiak bideratu eta gauzatzeko modua izan dezaten.

Saria 1.000.000 ptakoa eta proiektua gauzatzen bada 2.500.000 pta.ko saria lor daiteke.

## San Pedro jaiak, Eskoriatzan

Ekainaren 28an hasi berri dira San Pedro jaiak Eskoriatzan eta uztailaren 3rarte luzatuko dira. Jaiak 28an txupinazo eta pregoiarekin hasi ziren. 29an, San Pedro egunean, eguerdian Papillon taldearekin Bermouth dantzaldia egon zen eta arratsaldean Gorosari Dantza taldekoekin, Euskal dantzak. Eguna bukatzeko, eskupilota eta dantzaldia egon zen. Ekainaren 30a txirrindulari lasterketarekin hasi da. Egunean zehar, haurrentzako parkea, mus

txapelketa... egongo da. Eta gauean, tanborrada. Uztailaren 31ean, sokamuturra eta abar egongo dira. Eguerdiko 2etan, herri bazkaria eta ondoren kua-drillen arteko jokuak. Eta eguna bukatzeko, dantza egiteko gogoak jarraiten badu, Izadi taldearekin dantzaldia, plazan eta Herriko taldeen rock kontzertua frontoian.

Zapatuan ere jaiak jarraituko dute. Guzti hau eta gehiago ikusteko eta gozatzeko aukera izango dugu San Pedroan.



**San Juan bezperan jende ugari bildu zen kalean,** bai arratsaldean eta baita gabean ere. Arratsaldean bonba japoniarrekin eman zitzaion hasiera jaiari. Gabean, barriz, 10,30etarako plaza jendez beteta zegoen sua noiz piztu zain. Gauerdian zezen suzkoak urten zuen. Ondoren tantaiaren ordua heldu zen, poliki-poliki igo zuten tantaia aurtengo kinttoek. Jendearen laguntzarekin eta euren indarrarekin, 2,30ak aldera altxatuta zegoen.

### SAGASTA

#### ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14  
☎ 79 16 10

### IRKLU

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

### IMANOL ARRAZOLA

#### KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D  
☎ 79 93 55



Egun zoragarriak pasatzea espero dute antolatzaileek

## San Lorentzo jaiak, Portasolen

San Lorentzo jaiak datorren uztailaren 15, 16 eta 17an izango ditugu Portasolen. Bertan ekin tza ugari egingo dira, goizean goiz hasi eta gaberarte, Portasol Auzoko Gazte Lagun Elkarteak antolatuta.

Jaiak arratsaldeko 7etan hasiko dira txupinazoarekin, eta buruhandi eta erraldioen kalejirarekin. Gabeko 11etatik aurrera dantzaldia izango da Izadi taldearekin. Eta atsedenaldian, dantza eta Play-Back txapelketa egongo da. Txapelketa honetan jende asko apuntetan bada, izenematea egingo da, bestela ez.

Hurrengo egunean 10etan di-  
na izango da Aretxabaletako txis-

tulariekin. Eguerdiko 12etan sokamuturra eta arratsaldeko 3retan mus txapelketa egingo da. 4retan txikiendako jolasak eta horren ostean txokolatada. 6etan buruhandiak eta erraldoiak, eta jarraian sokamuturra egongo dira.

Aurten, nobedade moduan, Eguzkialdeko aparkalekuan afari herrikoa egingo dute. Afarira joateko txartelak auzoko tabernetan egongo dira salgai.

11etan, Drakkar taldearekin dantzaldia egongo da eta ondoren, oraindik tente jarraiketan duenarendako jokuak egongo dira.

Domekan, goizeko 10etan San Lorentzoren ohorez Alme-

neko elizan meza emango da. 11,30etan marrazki lehiaketa izango da Gipuzkoako plazan eta arratsaldeko 4retan haurrentzat xake txapelketa egongo da. Txapelketa bietan denondako sariak egongo dira.

Arratsaldeko 5etan ezkondu eta ezkongaien arteko futbol partidua egongo da.

Eta jaiari bukaera emateko, txupinazoa.

Guzti horrekin, antolatzaileek aurten Portasoleko jaietara jende ugari erakartzea espero dute. Antolatzaileek urteroko ohiturari jarraituaz txosnak ere ipiniko dituzte. Beraz animatu eta joan bertara.



Euskadin eguerdiko hama-  
biak zirenean, arratsaldeko hiru-  
rak Pakistanen, 13 ordu luzez lan  
egin ondoren, Alberto Iñurrategi,  
Juanito Oiarzabal, eta Juan To-  
mas Gutierrezek K-2 gailurrera  
heltzea lortu zuten. Alberto Iñu-  
rategik Euskadi irratia bidez,  
guzti hau baieztatu zuen: "*Bai,  
hementxe gaude gailurrean Juan  
Tomas, Juanito eta hirurok; anaia  
eta Kike berriz, hemendik ordu  
erdira daude.*" Azkenean denok  
lortu zuten goraino heltzea, K-2



## Euskal espedizioa K-2 gailurrean

gailurrera, 8.611 metrotara.

Azkenengo 100 metroak egi-  
tea 3 ordu t'erdi kostatu zitzaien.  
Azkenean Albertok honela labur-  
tu zuen ahalegina: "*Hasieran na-  
hiko malda errazak ziren eta elu-  
rra egoera onean zegoen. Botei-  
la lepora oso ondo iritsi gara,  
baina hortik aurrera maldak  
inklinazio dexente hartzeñ du.  
Gero elurrarekin nahiko arazo*

*izan dugu eta arriskutsua zen.  
Denbora dexente egin dugu zati  
hori ekipatzen. Zati hau gainditu  
ostean, elurra bigun zegoen,  
zenbatit lekutan belaunetik gora.  
Lepo moduko batera iritsi gara,  
8.500 m. ingurura. Hortik gora,  
nekea asko igarri dugu eta mar-  
txa asko moteldu da.*"

Kontuak kontu, munduko ga-  
ilurrik gaxena lortu dute, eta hau

gutxi balitz bide horretatik igo  
duten bakarrak dira.

Bide hau Tomo Cesenek za-  
baldu zuen 1986an, baina lepora  
iritsi eta ekaitzaren erruz ez zuen  
gailurra lortu. Urte honetatik au-  
rrera, ahalegin batzuk egin dira,  
baina ez du inork lortu.

Azkenean, 5 hauek lortu dute,  
inork inoiz lortu ez duena. Zorio-  
nak !

**Zorionak, Euskal espedizioa !!!**

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34  
79 31 87

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZAIRUAK  
DISEÑUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

# Zikloturismoa: kirola eta afizioa



Domekero Baldezate taberna parean batzen dira Atxabaltako zikloturistak bizikleta gainean kilometro mordozka bat egiteko asmoz

Duela 12 urte, Luis Mari Otxoa, Juan Aldabe, Jose Mari Roldan eta Jose Manuel Garciak bultzatuta, zikloturisten taldea sortu zen Atxabaltan. Urte asko pasa da hasierako urrats haietatik eta gaur egun talde sendo baten aurrean gaude. 90 bazkide duen talde honek, udako eta udaberriko domeka guztietan irteerak egiten ditu. Irteeretan 20 bat lagun biltzen dira eta bizikleta gainean inguruko paraje ia guztiak zeharkatzen dituzte.

Bestalde, diru kontuei dagokienez, urteroko bazkide bakoitzak 1500 pta ordaindu behar ditu eta Atxabaltako Udalaren diru laguntza ere jasoten dute, 40 mila pta. Diru

laguntza horrek, urteko gastuak estaltzeko balio izaten du. Gaur egun taldeko batzordea 5 lagunek osatzen dute: Aldabe, Blazquez, Hernandez, Mateos eta Herrastik. Dena dela, esan beharra dago, Zuzendaritza batzordea bi urtero aldatzen dela.

Zikloturistek urtero egun berezi bat izaten dute Irailaren 18an, Dorletan ospatzen baita zikloturisten eguna. Bertan, Gipuzkoako zikloturista denak elkartzeko dira, eta Dorleta-Dorleta klasika egiten dute. 100 kilometroko klasika hau Dorletan bukatzen da. Kilometro guzti horiek bizikleta gainean egin ondoren, meza izaten dute eta Amapurjinarri lora sorta eskeintzen diote.

Atxabaltako zikloturista taldearen nondik norakoak ezagutzeko, Jesus Mari Herrastirekin egon gara. Jesus Mari taldeko zuzendaria da gaur egun eta bi urte beteko ditu zuzendari lanean. Zuzendaritza batzordean bost lagun dabilta lanean, eta gu batzordeko buruarekin egon gara.



## “Bizikletaz ibiltzeak alde onak eta txarrak ditu”

• **Edonork egin dezake zikloturismoa?**

• Bai, edonork egin dezake. Kilometro asko egiten ditugu, baina forma apur bat hartu ezke-ro, edozein izan daiteke gai zikloturista izateko.

• **Emakumerik badago?**

• Emakume bat dago. Beraz, proportzioan gutxi dira baina norbait animatu ezke-ro guk oso gustora hartuko genuke taldean.

• **Bizikletan ibiltzeko leku onak ditugu?**

• Egia esateko leku on gutxi daude. Gainera, inguruko errepideak estuak dira eta oso arrisku tsuak, beraz, irteeretan argi ibili behar dugu. Araban, bestalde, errepide hobeagoak daudenez sarritan haruntz joaten gara.

• **Nondik egiten dituzue irteerak?**

• Inguruetan ibiltzen gara eta gero Araba eta Bizkaia alderuntz ere irteerak egiten ditugu. Egutegian izendatuta ditugun irteera guztiak betez gero, urte guztian 2.290 kilometro egingo ditugu, irteera bakoitzean batez bestea

70 kilometrokoa da.

• **Jendeak domekeroko erritmoa jarraitzeko, aurretik prestatu egiten da?**

• Maila apur bat izateko, komeni da astean zehar kilometro batzuk egitea. Eta jendeak horrela egiten du, gainera, asko igeritzen da aurretik prestatuta bazaudedo edo ez.

• **Benetan da arriskutsua errepidean bizikletaz ibiltzea?**

• Trafiko handia dago eta horregatik da arriskutsua. Bakarrik joaten bazara, behar bada, ez da hain arriskutsua, baina taldean joan ezke-ro bai, kontu gehiagorekin joan behar duzu, gidariak horrenbeste txirrindulari ikustean urduri jartzen direlako.

• **Ez zarete zuek ere, nahiko arriskutsuak kotxean dabilta-nentzat?**

• Izan gaitezke, batez ere, tropelean joaten garenean. Talde txikian goazenean erresponsabilitate haundiagoz joaten gara eta askoz hobeto. Baina, tropelean irteten garenean, askotan abusatu egiten dugu, bai guk eta baita

kotxeetan doazeneke ere.

• **Zergatik joaten zarete tropelean eta ez banan banan?**

• Jende asko dagoenean gaitxa da banan banan joatea. Adibidez, 20 lagun banan banan joaten bagara sor dezakegun hilera izugarria izan daiteke, eta kotxeentzat ere aurreratze arriskutsuagoa izan daiteke.

• **Zer egin beharko litzateke gidari eta txirrindularien arteko oreka mantentzeko?**

• Bien arteko edukazioa eta errespetoa nahi eta nahiezko baldintza dela uste dut. Askotan iskanbila mordo bat egoten dira errespeto falta dagoelako. Eta bestetik errepide zabalagoak edukiko bagenitu, alde biak askoz ere hobeto ibiliko ginateteke.

• **Trenbide zaharra berreskuratzearen aldeko ideia, zelan ikusten duzue?**

• Oso ondo ikusten dugu, eta txostena guk ere sinatu genuen. Ideia zoragarria da, eta proiektua aurrera badoa, oinezkoak eta txirrindulariok lasai ibiltzeko leku egoki bat izango dugu.

- ▲ Noiz hasi zinen zikloturismoaren inguruan. Zergatik?
- ▲ Horrenbeste kilometro egin eta gero, norbera gustora geratzen da?
- ▲ Gaur egun arriskutsua da errepidean ibiltzea?



## Fortunato Lopez

(Zikloturista)

- ▲ Duela 9 urte hasi nintzen betidanik gustatu izan zaidalako.
- ▲ Bai, gustora egiten duzun gauza denez, erakargarria da oso. Gero asteen zehar ez dut asko entrenetan baina 2 egunetan beti irtetzen naiz bizikletaz domekarako forman egoteko.
- ▲ Azken urteotan trafikoa dela eta, nahiko arriskutsua da errepidean ibiltzea. Domekero zure burua arriskutan jartzen duzu, honek

arreta haundiz ibiltzea eskatzen du. Konponbidea zein izango litzatekeen esatea gatxa da, baina nire uestez bizikletaz ibiltzeko errepideak moldatu beharko lirатеke, arzenak jarriz eta abar. Horrela gu ondo ibiliko ginатеke eta auto gidariak ere bai.


## Rodrigo Fernandez

(Zikloturista)

▲ Hasieratik nabil zikloturisten taldean, kirola asko gustatu izan zait beti, eta batez ere, txirrindularitza.

▲ Kilometro guzti horiek egiten ditudanean oso erlajatu eta ondo sentitzen naiz, bizio bat bezala da, ibiltzen hasten zara eta uzten baduzu zeozer falta dela somatzen duzu. Domekero irteeretara joateko eta puntu onean egoteko asteen zehar nire kabuz irteera batzuk egiten ditut. Gainera beharrezkoak direla uste dut.

▲ Arriskutsua da. Alde batetik, zikloturistak askotan ez gara joaten joan behar dugun bezala, eta bestetik, kotxe gidariak ere sarri pasatu egiten dira. Baina afizioa baduzu, ez dago beste erremediorik. Arazoa konpontzeko arzen haundiagoak egin beharko lirатеke eta gero mentalizazioa ere garrantzitsua dela uste dut. Hala ere, bai auto gidariak eta baita zikloturistak ere, errepidea guztiona dela mentalizatzen ari garelakoan nago.



Saskibaloitxapelketak bere onenak eman ditu. Jardunaldi guztiak bukatu dira eta orain finalerdiak ditugu begi bistan. Finalerdiak astebukaera honetan jokatuko dira eta gero finalak.

Txapelketan ez da arazo haundirik egon, nahiz eta antolatzaileak adierazi epaileak topetako arazoak izan dituztela, eta kantxarekin beste zenbait arazo egon dira, kristalez beteta zegoelako jokatzeke orduan.

Dena dela, antolatzaileak baikor azaldu zaizkigu txapelketak izan



duen martxarekin eta orain futbito txapelketak hartuko du lekukoa.

## Arlutz saskibaloitxapelketa

### Sailkapena

FATXUS AND THE OTHERS	15 puntu
ESGUINCE	14 puntu
AKER	14 puntu
LLENO POR FAVOR	14 puntu
SALVA NOT DEAD	11 puntu
D.D.K	11 puntu
HANDRY&FLODY	11 puntu
LAS BERRUGAS DE ...	10 puntu
LEXE GURELEFA	8 puntu


### Finalerdiak

Fatxus and the others - Lleno por favor  
Esguinca - Aker

## ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

**Mikel Roldan Ford Mugarri- Sport Sasiain taldeko txirrindularia da. Eta aurten, bi lasterketa garrantzi tsu irabazi ditu, ziklo kross eta errepidean, hain zuzen ere. Lasterketa biak Gipuzkoako txapelketei zegokienez, Mikel Atxabaltako txirrindularia Gipuzkoako txapeldun dugu bi modalitate horietan.**



Mikelek benetako txapelduna dela erakutsi du

## Mikel Roldan: Txapeldun baten urratsak

• Zer sentitzen da Gipuzkoako bi txapelketa irabaztean, ziklo kross-ean eta errepidean?

• Poz handia, irabazi ditudan bi lasterketak Gipuzkoako txapelketak izan dira eta.

• Irabazi duzun azken lasterketa, errepidean jokatu-takoa, espero zenuen irabaztea?

• Esperantzak euki baneuzkan, baina ordua iritsi arte ez duzu benetako ziurtasunik.

• Noiz konturatu zinen txapeldun izango zinela?

• Erdi sprintean heldu ginen

eta azkenerarte ez nuen aurrea hartu, beraz, helmuga pasa nuen konturatu nintzen irabazlea nintzela.

• Zenbat txirrindularik hartu zenuten parte?

• Gipuzkoako azken txapelketan 120 bat txirrindularik hasi genuen lasterketa.

• Zenbat urtetik hasi zinen txirrindularitzan?

• Hasi, hasi 7 urtetik, baina lasterketetan parte hartzen 9 urtetik hasi nintzen.

• Zure anaiak izan du eragina zu txirrindulari izateko?

• Bai, egia esateko izan du.

Bera lasterketetan oso ondo ibiltzen zen, eta nik ere horrelakoa izan gura nuen.

• Zein da zure idoloa txirrindularitza munduan?

• Nire idoloa Carrera taldeko Chiapucci txirrindularia da.

• Zure helburua txirrindulari profesionala izatea da?

• Hori oso gaxta da. Dena dela, horra heltzeko ahaleginak egingo ditut, nahiz eta aurretik jakin, oso gaxta dela helburu hori lortzea.

• Pozik zaude Dorletako Ama txirrindulari taldean?

• Bai, oso pozik nago, gainera taldea oso ondo dabil.

**LASA-AGUILERA**

**Aholkularitza**


Andra Mari Auzunea,3

☎ 79 29 26

ARETXABAETA

**LEIBAR**

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79

ARETXABAETA



**H**urbiltasunak maita sunerako edota gorrotorako bideak eskaintzan ditu. Beraien arteko hain muga fina izanik, ez da jakiten elkarren arteko marra non hasi eta non bukatzen den.

Leintz Bailarako partaideen artean (Aretxabaleta eta Eskoria-tza ) beti egon ei da maitasun/gorrote harremana. Maitasuna eta gorrotoa bere zentzu goxoenean hartuta, hori bai.

1556. urtean, euren Bailara askatasuna lortu zutenetik, 1630. urteraino, elkarrekin bizi izan ziren. Banaketa garaia heldu zenean, mugak jartzerakoan ekin ziren lehenengo iskanbilak. Baze-torren muga, zuzen-zuzen, eta

Mendiola parera iritsi orduko, eskoriatzarrek, zera esan omen zuten "beno, Mendiola, kasi-kasi guretako"; eta konturatzen bazarete, mugak puntu horretan zentzu gabeko sestra (kurba) egiten du.

Handik aurrera, euren eta gure arteko gora-beherak izan ditugu.

Orain dela 35 bat urte, atxabaltar batzuk, Eskoriatzara joa-tea erabaki zuten bazkaloste ba-tean. Eta joan ziren, joan ere. Atxabaltarrok, bazkalduta bazeu-den ere, eskoriatzarrak, bazkalt-zeko asmotan. Eta kontatzen zu-tenez, leiho eta balkoi guztiak zabal-zabalik, euren sobrekama berriak erakusteko eta inbidia sortu nahaian. Aurrengo, kuar-

toa, gero pasiloa, eta han pasilo akaberan, sukaldean, mahai inguruan, familia osoa, etxekoan-dreak, zipristin artean zopa plate-rak betetzen zituen bitartean, hori bai, zopa ahal den eta gorenetik botata, klaseko jendeak ikus ze-zan. Honeik eskoriatzarrok!

Atxabaltatik, San Pedro hirugarrenean Eskoriatzara joan zire-nak: (ezkerretik eskubira)

Goian: **Juan Otxoa, Domingo Uribealgo, Antonio Gonzalez, Vicente Arze, eta Juan Bengoa.**

Behean: **Jesus Garzi-etxabe, Iñaki Altuna, eta Nemesio Arkauz.**

## Jaioko dira barriak



J.J. Aretxaga

**Lotsabakoak** gazteak. Tradizinoek errespetua merezi dute. Lehenengo, tantaia, aurten pinua, motozerraz bota zuten, edo hobeto esanda zioten, gero ia su eman zioten pinudi bati eta akabetako pinua hamar minutuan jaso. Ez ulurik, ez takarrararik, bapez; ez zen emoziorik egon. Eta hainbeste presa zertarako? Gero arineketan Mondragoera fateko? Bien, bien...

Egia esanda, San Juan bezperan beti gertatzen da zerbait. Igaz sua ixotuta gero argia itxungitzea ahaztu zitzairen. Aurten, barrez, txistularien musika bukatu aurretik urten zuen sututako **zezenak**, eta horrek sutu egin zuen nire lagun bat, txistularien fandangoa eta arin-arina entzutea gusetan zaio eta.

Ahaztu dezagun San Juan bezpera eta

herriko txapeldunen izenak aitatuko ditut. Hurretik hasiko naiz. Aste honetan dira San Pedro jaiak Eskoriatzan. Jaietarako normalean kartelak ataraten dira eta eskoitzarrak eurok gutxiago ez direla eta kartel lehiaketa antolatu zuten. Kontua da atxabaltartu batek irabazi duela lehiaketa hori, Areantzan bizi den **Gurutze Mujikak**.

Eskoriatzatik Gipuzkoara. **Mikel Roldanek** bigarren mailako kadetetako Gipuzkoako txapelketa irabazi du, bizikletan jakina. Eta Gipuzkoatik Euskadira. **Ibai Orruñok**, medikuaren semeak, Espainiako txapelketara doa mono aleta modalidadean, igeriketan nik uste.

**Andoni Zubizarreta** Valentziara ei doa. Aretxagazetan ere egin ditugu azken orduko fitxaketak. Gure lehendakariaren emazteak, **Aran-txak**, alabatxoa izan du. Umeak 2.200 gramoko pisua zeukan eta ondo daude ama-alabak. Ahaztu baino lehen, umearen izena **Ainhoa** da, Ainhoa Garro.

Notiziarik inportanteena bukaerarako utzi dut. Ez dakit egia den, baina kontatuko dizuet zer entzun dudana. Bergaran eta Mondragoen egiten dituztenez, gure herriko peña taurinoak Andramaixetarako zezen korrida antolatzea erabaki du. Herrian plaza ederra daukagula dioe eta hori aprobetxatu egin behar dela. Tradizino zaharrak badoaz eta barriak datozkigu.



# LASAGABASTER

## ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



**Saria: 7.000 pztako materiala eros dezakezu Zazpigain liburudendan: liburuak, fotokopiak, karpetak...**

**BAZKIDEEK  
BAKARRIK IZANGO  
DUTE JOKU BARRI  
HONETAN PARTE  
HARTZEKO AUKERA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..




▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

**Inma Migel**

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **PATXI ALZOLA ARRESE**. Bazkide -zenbakia: 42.

**Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?**



Erantzuna: .....

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Tfnoa: .....



**Izena:** Martin Garai.  
**Ofizioa:** Udaltzaina.  
**Afizioa:** Mendia.  
**Misioa:** Nire familia aurrera ateratzea.

- 1.- Zenbat multa egunean?**  
 - Gutxi.
- 2.- Moterik bai?**  
 - Ez dut uste.
- 3.- Bakeroak edo terga-  
 lezko frakak?**  
 - Bakeroak.
- 4.-Oporretan nora?**  
 - Pirineoetara.
- 5.- Txuleta edo tortila?**  
 - Tortila.
- 6.- Egin duzun juergarik  
 onena?**  
 - Juerga asko eta onak egin  
 ditut.
- 7.- Mendira joaten zara?**  
 - Bai.

- 8.- Susarik topatu duzu au-  
 rten?**  
 - Aurten ez, beste urte batzu-  
 tan bai.
- 9.- Euskeraz ikasten zabil-  
 ta, zer da errezagoa hitzegitea  
 edo idaztea?**  
 - Idaztea.
- 10.- Lagunekin euskaraz  
 hitzeginen duzu?**  
 - Batzurekin bai, beste bat-  
 zurekin ez.
- 11.- Zure lanean beha-  
 rrezkoa da?**  
 - Nik uste dut baietz.
- 12.- Ze lan egiten duzu  
 etxean?**

- Etxea garbitu, ontziak gar-  
 bitu, oheak egin,... denetarik  
 egiten dut.
- 13.- Noiz elkartzen zara  
 lagunekin?**  
 - Aste bukaeretan bakarrik.
- 14.- Seme-alabak zure an-  
 tzik bai?**  
 - Semeak bai.
- 15.- Tabernaz-taberna edo  
 mendiz-mendi?**  
 - Mendiz-mendi.
- 16.- Jubilatzen zarenean,  
 zer egitea gustatuko litzai-  
 zuke?**  
 - Mendira joan, irakurri,  
 baratzeko lanak...

## OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

ARETXABALETAKO

## ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

## AITZIBER

HAURRAK



BEHERAPENAK

Lezama Merkatala Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

## 1

### EGUAKOTXA

- Udako Kirol ihardueren hasiera.

## 2

### ZAPATUA

- ARATZ Elkarreak antolatuta jai ederra ospatuko da Apotzan.

## 3

### DOMEKA

- Zikloturisten urteera: Aretxabaleta - Landa - Ozaeta - Heredia - Salbatierra - Opakua

- Errontegi - Maeztu - Virgala
- Azazeta - Gasteiz - Urbina - Landa - Aretxabaleta.

- Zاراia Mendi Taldeak antolatuta, Argazki Rallya.

- Andra Mari kartel lehiaketaren irabazleen aukeraketa.

- VIII. Margo Lehiaketa.

## 4

### ASTELEHENA

- Andra Mari Kartel lehiaketa.

ta eta VIII. Margo lehiaketaren erakusketa.

- Ortzadarrek antolatuta, Udaleku Irekien hasiera.

## 10

### DOMEKA

- Zikloturisten urteera: Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Armentia - Gonetxa - Nanclares - Morillas - Aprikano - Koartango - Abornikano - Izarra - Murgia - Zarate - Gopegi - Legutio - Landa - Aretxabaleta.

## ARETXAZOKA

### Lana

- ✓ Zure aulkia hondatu bazu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Deitu 79 15 96ra.

- ✓ OHOk eta 1en eta 2. Goi Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 97.

- ✓ Edozein motatako lanak garbira pasetan dituz ordenagailuz. Interesatuak deitu 79 77 59 telefonora.

### Lana

- ✓ Edozein motatako, lan, txosten, agiri eta abar ordenagailuz pasatzen dugu. Interesatuak deitu 79 12 49 zenbakira eta Agurtzanez galdetu.

- ✓ Neska eskaldun batek bere burua eskaintzen du klase partikularrak emateko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 76 59.

### Salerosketak

- ✓ Fiesta 1.6 Diesel-a salgai. Matrikula SS-X. 325.000 pta. Tfnoa: 79 12 53. Jose Felix.

- ✓ Ford Escort-a salgai. Prezio interesgarria. Matrikula SS-U. Tfnoa: 79 63 16. Luis.

- ✓ Corsa 1.300 GT. salgai. Tfnoa: 79 12 53

**atxabaltarren aldizkaria  
kalean ikusi ahal izateko  
ezinbesteko kolaborazioa  
eskainiko duzu.  
Euskeraren onerako egin  
zaitez bazkide.**

**Aretxagazeta Elkartea, Kultur-Elkartea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila**